

# Denbora

**Unai Labat Sanchez**  
**DBH 1. eta 2. kurtsoak 2. saria**  
**Tafallako Garcés de los Fayos Ikastola**

Tik-tak, tik-tak  
erlojua entzuten da.  
Denbora pasatzen doa;  
Urteak eta hilabeteak,  
Asteak eta egunak,  
Egunak eta gauak.

Bihar beste egun bat izango da,  
Oraindik motzagoa,  
Beste kolore batekoa.  
Gaur zuria, bihar beltza.  
Gaur beroa, bihar hotza.  
Alderantzizkoa.

Tik-tak, tik-tak  
Erlojua entzuten da.  
Denbora pasatzen doa;  
Urteak eta hilabeteak,  
Asteak eta egunak,  
Egunak eta gauak.

Gu aldatzen goaz,  
Gero eta zaharragoak,  
Gero eta azkarragoak,  
Gero eta jakintsuagoak,  
Gero eta helduagoak,  
Bizitza motzagokoak.